


IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRAK EUSKADIN

Lehen txostena · Iraila 2008



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



**OECD
PISA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: 2008ko azaroa

© ISEI-IVEI

ARGITARATZAILEA:

ISEI-IVEI

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.- 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 – Faxa: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

IKERKETAREN KOORDINATZAILEA:

Paz Martínez Fernández de Larrinoa

TXOSTENA EGIN DUTENAK:

Alicia Sáinz Martínez

Araceli Angulo Vargas

Cristina Elorza Ibáñez de Gauna

Yolanda Méndez Usillos

AHOLKULARITZA ETA GAINBEGIRATZE TEKNIKOA:

Eduardo Ubieta Muñuzuri

DISEÑO:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

AURKIBIDEA

1. IKERKETAREN IKUSMOLDEA	5
2. BULLYING IKERLANAREN EZAUGARRIAK	9
3. EMAITZAK	13
3.1. Eaitza orokorrak	15
3.2. Lehen Hezkuntzako emaitzak	22
3.3. DBHko emaitzak	34
3.4. Zuzendaritza Taldeetako emaitzak	48
4. ONDORIO OROKORRAK	51

IKERKETAREN IKUSMOLDEA

1

1.1. BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN DEFINIZIOA

Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak honako hauek dira:

- **Nahita egindako ekintzak dira; helburua min egitea da, beldurra, larrimina... eragitea.**
- **Erasotzailearen eta biktimaren arteko harreman asimetrikoa da: botere maila, erreala ala alegiazkoa, ezberdina dute.**
- **Denboran zehar behin eta berriro errepikatzen dira. Sarritan gertatzen dira.**

“Pertsona baten edo gehiagoren jokaera negatiboa (kaltegarria) da, nekez defenda daitekeen beste pertsona baten kontra zuzendua, nahita egindakoa eta errepikatzen dena” (Olweus 2005).

Arazo horri buruzko ikerlan ezberdinak egin badira ere, oraindik ez da aho batez onartu ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak definitzen dituen terminorik. Horregatik ikerlan honetan “ikaskideen arteko tratu txarrak” terminoaren barruan egoera horiek izendatzeko erabili ohi diren beste termino batzuk sartuko dira, hala nola tratu txarrak, berdinen arteko abusua edo jazarpena, bullyinga, eskolako indarkeria eta abar.

1.2. TRATU TXAR MOTAK

Ikastetxeen inguruneko tratu txarren ezaugarriak hobeto ulertzeko, DBHko galdera sortan ageri diren 15 jokaerak sei multzotan bildu dira, tratu txar mota ezberdinen arabera. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako galdera sortan ageri diren 13 jokaerak tratu txar mota ezberdinei dagozkien bost multzotan bildu dira:

Tipos de maltrato 2008	Educación Primaria	Educación Secundaria Obligatoria
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Cyberbullyinga	<ul style="list-style-type: none"> • Mezuak bidaltzen dizkirate mugikorraz, e-mailez edo txatez mehatxatzeko, iraintzeko... 	<ul style="list-style-type: none"> • Mezuak bidaltzen dizkirate mugikorraz, e-mailez edo txatez mehatxatzeko, iraintzeko... • Mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute mehatxatzeko... eta mugikorraren edo Interneten bidez. beste ikaskide batzuei pasatzen diete
Sexu jazarpena		<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate

1.3. NOLA KALKULATU DA TRATU TXARREN ADIERAZLE OROKORRA?

Tratu txarren **adierazle orokorraren** balioa **tratu txarretako 12 jokaeretako bat gutxienez** "sarritan" edo "beti" sufritu duten ikasleak kontuan harturik kalkulatu da. Jarraian zehazten diren **12 jokaera horiek komunak dira LHn eta DBHn 2005eko eta 2008ko ikerlanetan**, informazioa konparatzea bermatu ahal izateko:

Iraintzen naute
Izengoitiak jartzen dizkirate
Nitaz txarto hitz egiten dute

Gauzak ezkututzen dizkirate
Gauzak apurtzen dizkirate
Gauzak lapurtzen dizkirate

Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute)
Ez didate parte hartzen uzten

Jotzen naute
Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute
Makilekin mehatxatzen naute
Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute

1.4. ADIERAZLEAREN KALKULUA TRATU TXAR MOTA EZBERDINEN ARABERA

Adierazlearen balioa tratu txar motaren arabera kalkulatzeko hurrengo **multzo hauetako jokaera bat gutxienez** "sarritan" edo "beti" sufritu dutela dioten ikasleak kontuan hartu dira:

- **Ahozko tratu txarrak:**
 - Iraintzen naute.
 - Izengoitiak jartzen dizkirate.
 - Nitaz txarto hitz egiten dute.
- **Biktimaren gizarte-baztertzeara:**
 - Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute).
 - Ez didate parte hartzen uzten.
- **Tratu txar fisikoak:**
 - Jotzen naute.
 - Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute.
 - Makilekin mehatxatzen naute.
 - Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute.
- **Biktimaren gauzei erasotzea:**
 - Gauzak ezkututzen dizkirate.
 - Gauzak apurtzen dizkirate.
 - Gauzak lapurtzen dizkirate.
- **Sexu jazarpena (DBHn bakarrik):**
 - Sexualki jazartzen didate.
- **Ciberbullyinga:**
 - Telefono mugikorraz, e-mailez edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko edo nitaz barre egiteko.
 - Telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute, gero beste kide batzuei pasatzeko edo Interneten eskegitzeko (DBHn bakarrik).

BULLYING IKERLANAREN
EZAUGARRIAK

2

Bullyingari buruzko lehen ikerketa 2004-05 ikasturtean egin zen. Bi galdera sorta banatu ziren: bata ikasleentzako, Herritarren Defendatzailearen ikerlanerako eskolako indarkeriari buruz prestatutako galdera sorta (Madril, 1999) baina Kontrol Zerrendarekin (Arora, 1989) osatua; eta bestea ikastetxeko zuzendaritza taldearentzako.

Bigarren ikerketa, Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari 2007ko martxoaren 2an hala eskaturik, 2007-08 ikasturtean burutu da, antzerako baldintzekin ikaskideen arteko tratatu txarren bilakaera neurtzeko asmoz.

Aplikazio hori webaren bidez burutu da oso-osorik: ikastetxeetako datuen bilketa, zuzendaritza taldeentzako galdera sortak eta baita ikasleentzako galdera sortak ere.

Aipatu beharrekoa da ikastetxeen eta ikasleen laguntza, galdera sortak informatika programa baten bidez inolako arazorik gabe bete baitituzte.

ISEI-IVEItik aplikazioaren kontrola "in situ" egin da LHko eta DBHko 164 ikastetxeen %5ean.

Ikasleentzako galdera sortak hurrengo ezaugarri hauek ditu:

- Ikasle guztiek galdera guztiei erantzun behar izan diete.
- Ikasleari galderatik kanpo geratzeko aukera galdera guztietan eman zaio honelako erantzunen bidez: "ez dut inoiz horrelakorik ikusi", "ez dut inor zirikatzen", "ez zait inoiz gertatu", "ez dakit zer egiten duten" eta abar.
- Galderak hiru ikuspuntu ezberdinetatik egiten dira: lekukoaren ikuspuntutik, biktimaren ikuspuntutik eta erasotzailearen ikuspuntutik. Ikerketan parte hartu duten ikasleak lekukoaren, biktimaren edo erasotzailearen lekuan jartzen dira galdera sortan aurkezten zaizkien jokoaren aurrean.
- Jokaerez gain, horiek non gertatzen diren ere aztertzen da, beste zenbait alderdirekin batera, hala nola biktimaren erreakzioa, inguruko jendearen erreakzioa eta abar.
- Galdera sortak hiru mota ezberdinetako galderak ditu:
 - Erantzuna mailakatzea eskatzen duten galderak: "inoiz ere ez", "batzuetan", "sarritan" eta "beti".
 - Erantzun bakarra hautatzea eskatzen duten galderak.
 - Erantzun bat edo batzuk hautatzeko aukera ematen duten galderak.

Txosten honetako grafikoak honelako ohar argigarriekin aurkezten dira:

- *"Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua*: "inoiz ere ez", "batzuetan", "sarritan" eta "beti" aukerak dituzten galderei dagozkien grafikoetan ageri da. Galderari erantzun dioten ikasle guztien artean, "sarritan" eta "beti" erantzun duten ikasleen ehunekoa adierazten du.
- *(Ikasle guztiak kontuan izanik)*: ehunekoak kasu honetan lagineko ikasle guztien erantzunak kontuan izanik kalkulatu dira.
 - Galderak ikaslearengandik erantzun bakar bat eskatzen duenean, grafikoetan ageri diren ehuneko batura %100 da, adibidez honelako galderetan: "Beldurra arrazoi ezberdinengatik sentitu daiteke. Ikastetxera etortzeko beldurrik izan duzu inoiz ikasturte honetan? Zuk pentsatzen duzunera gehien hurbiltzen den aukeran klik egin" (ikus 21. grafikoa).
 - Galderak erantzun bat baino gehiagorako aukera ematen duenean, grafikoetan ageri diren ehuneko batura %100 baino gehiago da, adibidez honelako galderetan: Zein da irakasleekiko horrela sentitzeko arrazoi nagusia? Zuk pentsatzen duzunera gehien hurbiltzen den aukeran edo aukeretan klik egin" (ikus 24. grafikoa).

Laginen ezaugarriak etapa bakoitzaren atalean aurkezten dira.

2004-2005 ikasturtean galdera sorta DBHn azaroan pasa zen eta LHn martxoan. Ikasturte honetan datu bilketa aldi berean egin da bi etapetan, apirilean.

2008ko ikerketan **aldaketa batzuk egin dira 2005eko ikerketarekiko**, hauek hain zuzen ere:

- Elementu berri bat **sartu da**: tratu txarren behaketa teknologia berrien bidez egitea, hala nola, ordenagailu bidezko mezuak, telefono mugikorra, txatak... Modalitate honi *ciberbullying* izena eman zaio.
- Ikasleen galdera sortako 10., 11. eta 12. galderak **moldatu** egin dira. Galdera horiek tratu txarrak gertatzen direneko egoerei dagozkie. Behatu beharreko egoerak bost multzotan banatu dira, tratu txar mota ezberdinen arabera: ahozko tratu txarrak, gizarte-baztertzea, tratu txar fisikoak, gauzei erasotzea eta ciberbullyinga.

Aldaketa horiek eragotzi egiten dute 2005ean ikertu ziren zenbat alderdi zuzenki konparatzea, hain zuzen ere, tratu txarrak non gertatzen diren, nortzuek ematen dituzten eta pertsona horiek non egoten diren. Elementu horiek, tratu txar moten arabera aztertuz gero, zeharka bakarrik konpara daitezke.

- Elementu bat **kendu da**: 2005ean moldatutako tresnatik (ARORA, 1989) atera zen bullying indizea kendu da. Oraingoan Herritarren Defendatzailearen ikerlanetan erabili den galdera sorta bakarrik hartu da kontutan, 2005ean bezala ezinbesteko tresna izan delarik, ikastetxeetako tratu txarrak ebaluatzeko indartsuagoa baita. Tratu txar mota ezberdinak zehazkiago bereizteko aukera ematen du eta hobeto moldatzen da ikastetxetik har daitezkeen neurrietara. Gainera, era ezberdinetako ikerlanetan erabiltzen denez, datuak beste egoera batzuetako datuekin konparatzeko aukera ematen duen tresna da

Bullying indizearen ordez, tratu txarren adierazle orokorra kalkulatu da. Adierazle hau tratu txarretako 12 jokaerretako bat gutxienez "sarritan" edo "beti" sufritu duten ikasleen ehunetik ateratzen da.

EMAITZAK **3**

3.1. EMAITZA OROKORRAK

3.1.1. Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaera

Tratu txarren adierazle orokorra.

Aipatutako 12 tratu txarretako jokaeretako bat gutxienez "sarritan" eta "beti" jasan duten ikasleen ehunekoa adierazten du.


Iraintzen naute
Izengoitiak jartzen dizkirate
Nitaz txarto hitz egiten dute

Gauzak ezkututzen dizkirate
Gauzak apurtzen dizkirate
Gauzak lapurtzen dizkirate

Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute)
Ez didate parte hartzen uzten

Jotzen naute
Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute
Makilekin mehatxatzen naute
Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute


1. grafikoa. Tratu txarren biktimak etapa eta urte ezberdinetan*



* Sarritan edo beti tratu txarren bat gutxienez sufritu dutela dioten ikasleen ehunekoa.

Tratu txarrak jasan dituztela dioten ikasleen ehunekoa jaitsi egin da 2005eko ikerketarekiko. Jaitsiera bi etapetan gertatu da. Lehen Hezkuntzan jaitsiera %2 ingurukoa izan da eta DBHn %1,3koa.

2. grafikoa. Tratu txarren biktimak* sexuaren, etaparen eta urtearen arabera




* Sarritan edo beti tratu txarren bat gutxienez sufritu dutela dioten ikasleen ehunekoa.

2008an tratu txarretako jokoeretako bat gutxienez "sarritan" eta "beti" jasan dutela dioten mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da, %3 inguru handiagoa Lehen Hezkuntzan eta %1,4 handiagoa DBHn.

Datuak 2005ekoekin konparatzen baditugu, Lehen Hezkuntzan mutilen eta nesken arteko ezberdintasuna antzerkoko da, baina DBHn ezberdintasuna gutxitu egin da, 2005ean 3 puntukoa izatetik 2008an 1,4 puntukoa izatera pasa delarik.

Grafikoan ikus daitekeenez, sexuaren, etaparen eta urtearen araberako gorabeheren kurbak oso antzerakoak dira.

3. grafikoa. Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaera urtearen eta mailaren arabera*.



* Sarritan edo beti tratu txarren bat gutxienez sufritu dutela dioten ikasleen ehunekoa.

2005eko ikerketarekin konparaturik, ehunekoa, dirudienez, apur bat jaitsi dira maila guztietan, jaitsiera garrantzitsu bakarra LH 5koa izan bada ere (gainerako mailetan ezberdintasuna ez da adierazgarria).

Bilakaera maila ezberdinetan zehar aztertzen bada (LHko 5. mailatik DBHko 4. mailara), datuek maila guztietan jai-tsiera txikia erakusten badute ere, aldaketa DBHko 2. eta 3. mailen artean gertatzen da. DBHko azken zikloko ikasle-ek gainerako mailetakoek baino tratu txar gutxiago jasaten dutela esaten dute.

2005ean LH 5eko eta DBH 4ko ehunekoen arteko aldea 10 puntukoa izan zen eta 2008an aldea 8 puntukoa izan da.

3.1.2. Tratu txar mota ezberdinen azterketa

Adierazlearen balioa tratu txar motaren arabera kalkulatzeko hurrengo multzo hauetako jokaera bat gutxienez "sarritan" edo "beti" sufritu dutela dioten ikasleak kontuan hartu dira.


Lehen Hezkuntzan: tratu txar mota ezberdinei dagozkien 5 multzotan bildu dira, hurrengo taulan adierazten den bezala.

Tratu txar motak Lehen Hezkuntzan	2008ko ikerketan lotutako jokaerak	2005ko ikerketan lotutako jokaerak
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Ciberbullyinga	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, e-mailez edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko eta abar 	

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: tratu txar mota ezberdinei dagozkien 6 multzotan bildu dira, hurrengo taulan adierazten den bezala.

Tratu txar motak DBH	2008ko ikerketan lotutako jokaerak	2005ko ikerketan lotutako jokaerak
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Nitaz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Ciberbullyinga	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, e-mailez edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko eta abar • Telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute, gero beste kide batzuei mugikorraz edo internetez pasatzeko 	
Sexu jazarpena	<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate 	<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate

4. grafikoa. Mota ezberdinetako tratu txarren bilakaera etaparen arabera* (2005-2008)**



* Sarritan edo beti tratu txarren bat gutxienez sufritu dutela dioten ikasleen ehunekoa.

** Daturik ez dagoen ataletan ez da informaziorik bildu.

Sexu jazarpenari dagozkion jokaeretan DBHko datuak bakarrik bildu dira, LHko ikasleen adina kontuan izanik tratu txar mota hori etapa horretan aztertzea ez baita bidezkoa iritzi.


Ciberbullyingari dagozkion jokaeretan 2008ko datuak bakarrik ageri dira, tratu txar mota hori berria baita ikerlan honetan.

Emaitzak etapaka aztertzen baditugu, 2008an ikertutako jokaera guztietan ikasleen ehunekoak LHn DBHn baino handiagoak direla ikusten da, cyberbullyingaren kasuan izan ezik. Konparazioa 2005eko eta 2008ko ikerlanen emaitzen artean egiten badugu, tratu txar fisikoei eta ahozkoiei dagozkien jokaerak LHn jaitsi direla ikusten da, baina gizarte-baztertzeari eta gauzei erasotzeari dagozkienak maila berean geratzen dira. DBHn gizarte-baztertzeari, gauzei erasotzeari eta tratu txar fisikoei dagozkien jokaerak mantendu egin dira, ahozko tratu txarrak jaitsi eta sexu jazarpena apur bat delarik.


Era ezberdinetako tratu txarrak bi etapetan eta bi ikerlanetan aztertu ondoren, ahozko tratu txarrak nagusi direla ikusten da.

Gutxienetan gertatzen diren tratu txar motak sexu jazarpena eta cyberbullyinga dira. Sexu jazarpena DBHn bakarrik aztertu da eta ikasleen %1 inguruk esaten dute horren biktimak izan direla, ehuneko txikia bada ere, igoera handia gertatu da. 2005eko emaitzekiko. Cyberbullyinga 2008an ikertu da lehenengoz eta ikasleen %1ek baino gutxiagok esaten dute tratu txar hori jasan dutela, ehuneko hau LHn bai DBHn ia berdina delarik.

5. grafikoa. Ahozko tratu txarrak mailaka bi ikerketetan




6. grafikoa. Ahozko tratu txarrak sexuaren eta etaparen arabera bi ikerketetan




Ahozko tratu txarrak dira nagusi bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn eta bai mutilen artean bai nesken artean. Sarrienak dira, baita ere, 2005ean eta 2008an egindako bi ikerketetan.

7. grafikoa. Biktimaren gizarte-baztertzea mailaka bi ikerketetan




8. grafikoa. Biktimaren gizarte-baztertzea sexuaren eta etaparen arabera bi ikerketetan




Gizarte-baztertzea ia hein berean jasaten dute neskek eta mutilek. 2005eko ikerketarekiko antzerako ehunekoa mantentzen da maila guztietan.

9. grafikoa. Tratu txar fisikoak mailaka bi ikerketetan




10. grafikoa. Tratu txar fisikoak sexuaren eta etaparen arabera bi ikerketan




Tratu txar fisikoak handiagoak dira mutilen kasuan nesken kasuan baino bi etapetan. 2005eko ikerketarekiko LHn jaitsi dira eta DBHn ez da aldaketa adierazgarririk izan.

11. grafikoa. Biktimaren gauzei erasotzea mailaka bi ikerketetan



12. grafikoa. Biktimaren gauzei erasotzea sexuaren eta etaparen arabera bi ikerketetan



Gauzei erasotzea antzerakoa izan da mutilen artean eta nesken artean eta baita bi ikerlanetan, izandako ezberdintasunak ez baitira estatistikoki adierazgarriak.

3.2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRAK LEHEN HEZKUNTZAN

3.2.1. Inkestaren lagina

- Ikasleak: 3.104
- Ikastetxeak: 84
- Aplikazioa: 2008ko apirila


Maila	Ikasleak	%
LH 5	1.549	49,9
LH 6	1.555	50,1
Guztira	3.104	100

- Lagina EUSTATEk egin du.
- Ikasle kopurua ikastetxeko 10 da gutxienez eta 40 gehienez.
- Lagin akatsa 0,04 da.
- Ikastetxe bakoitzeko 40 ikasleak (5. mailako 20 eta 6. mailako beste 20) informatika programa baten bidez zoriz hautatu dira.
- Inkestaren konplexutasunaren ondorioz, aplikazioa Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan bakarrik egin zen.

3.2.2. Tratu txarrak lekukoak, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntutatik

Jarraian ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (5. eta 6. mailetako) ikasleen artean ikasturtearen hasieratik behin eta berriro gertatzen diren tratu txarretako jokoak aztertzen dira.

13. grafikoa. Tratu txarretako jokoak LEKUKOen ikuspuntutik*
Lehen Hezkuntza 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Aurreko ikerketan bezala (2005), lekukoek sarrien behatutako jokaerak ahozko tratu txarrei dagozkienak dira. Ikasleen %20k esaten du ahozko tratu txarrak ikusten dituztela, bereziki "iraintzea" (%22,4), "berari buruz txarto hitz egitea" (%21,1) eta "izengoitiak jartzea" (%18,7).

Gizarte-baztertzeari dagokionez, "kasurik ez egitea (paso egitea)" eta "parte hartzen ez uztea" jokaerak lekukoek %10 inguruk ikusi dituzte.

Gauzei erasotzeari eta tratu txar fisikoei dagokienez, "jotzea" (%12), "gauzak ezkutatzea" (%9,3) eta "beldurtze hutsaz mehatxatzea" (%7,7) jokaerak dira nagusi.

**14. grafikoa. Tratu txarren bilakaera LEKUKOen ikuspuntutik*
Lehen Hezkuntza 2005-2008**




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Hiru urte hauetako bilakaerak erakusten du ikasleen ustez ikaskideek ikastetxean jasaten dituzten tratu txarrak gutxitu egin dira.

Lekukoek esanetan, ciberbullyinga hasi berria da ikastetxeetan, baina ehuneko apalarekin (%2,1).


15. grafikoa. BIKTIMEK jasandako tratu txarretako jokaerak* Lehen Hezkuntza 2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Biktimen esanetan, ahozko tratu txarrak eta gizarte-baztertea dira gehien jasaten dituzten jokaerak. Gauzei erasotzea eta tratu txar fisikoak hein askoz txikiago batean jasaten dituztela diote.


16. grafikoa. Tratu txarren bilakaera BIKTIMAREN ikuspuntutik* Lehen Hizkuntza 2005-2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Bi ikerketak konparatzen badira, biktimek beren esanetan sufritzen dituzten jokaera ezberdinen ehunekoa apur bat apalagoa da 2008an 2005ean baino, "ez didate parte hartzen uzten" jokaeraren kasuan izan ezik. Ezberdintasun adierazgarriak "izengoitiak jartzen dizkirate", "jotzen naute" eta "beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute" jokaeren kasuetan bakarrik gertatzen dira.

17. grafikoa. Tratu txarretako jokaerak ERASOTZAILÉAREN ikuspuntutik* Lehen Hezkuntza 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Deigarria da ikasle erasotzaileen ikuspuntutik "ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)" jokaerak ehunekorik altuena izatea.

Tratu txarrak ematen dituzten ikasleen ikuspuntutik, gizarte-baztertzea da jokaerarik arruntena, bigarren lekuan ahozko tratu txarrak daudelarik. Ehuneko txikiagoekin gauzei erasotzea, tratu txar fisikoak eta ciberbullyinga datoz.


18. grafikoa. Tratu txarren bilakaera ERASOTZAILEREaren ikuspuntutik*
Lehen Hezkuntza 2005-2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Tratu txarrak ematen dituzten ikasleen oraingo ikuspuntua duela hiru urte Lehen Hezkuntzan zutenarekin konparatzen badugu, badirudi orain kontzientzia handiagoa dutela ematen dituen tratu txarrei buruz hurrengo jokaerei dago kienez: "ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)", "izengoitiak jartzen dizkiot", "ez diot parte hartzen uzten", "gauzak ezkututzen dizkiot" eta "gauzak lapurtzen dizkiot". Jokaera horien ehunekoak, lekukoek eta biktimen iritziak, jaitsi egin dira, baina erasotzaileek uste dute areagotu egin direla, ezberdintasun adierazgarri bakarra "ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)" jokaeran gertatzen delarik.

19. grafikoa. Tratu txarrak lekukoek, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntuetatik*
Lehen Hezkuntza 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Tratu txarren lekukoek ehunekoak da altuena ia jokaera guztietan, jokaera horiek jende askok ikus ditzakeelako. Tratu txarrak jasaten dituzten ikasleek eta ematen dituztenek antzerako ikuspuntua dute egoera horiei buruz. Hala eta guz-

tiz ere, "jotzea" jokaera sarritan ikusi dutela diote lekukoek, baina biktimen ustetan gutxiagotan jasaten dute. Tratu txarren emaleen artean "izengoiak jartzea", "berari buruz txarto hitz egitea", "iraintzea" edo "gauzak ezkutatzea" jokaerak egiten dituztela aitortzen dutenen ehunekoa baxuagoa da.

Biktimei eta erasotzaileei dagozkien balioak antzerakoak dira edo apur bat altuagoak biktimen kasuan. "Kasurik ez egitea (paso egitea)" jokaeran, berriz, ehunekoa handiagoa da erasotzaileen kasuan.

**20. grafikoa. Tratu txarren bilakaera (biktima, lekuko eta erasotzaile bezala)*
Lehen Hezkuntza 2005-2008**



* "Sarritan" eta "beti" aukeretakoa ehuneko metatua.

Tratu txarren lekukoek, biktimen eta erasotzaileen iritziz, jokaera horien guztien bilakaera oso antzerakoa da 2005eko ebaluazioarekiko, "iraintzea" eta "jotzea" jokaeren kasuetan izan ezik. Lekukoek ikuspuntutik jokaera horien maiztasuna nabarmenki txikiagoa izan da 2008an 2005ean baino.

2008ko ikasle lekukoek 2005ekoek baino tratu txarretako jokaeren ehuneko txikiagoa ikusi dutela diote.

Tratu txarren biktimak ("izengoiak jartzen dizkidate", "iraintzen naute", "nitaz txarto hitz egiten dute" edo "jotzen naute") izan direla dioten ikasleen ehunekoa ere txikiagoa da 2008an 2005ean baino.

Tratu txarrak ematen dituztela aitortzen duten ikasleen ehunekoan ez dago ia aldaketarik 2005eko eta 2008ko ebaluazioen artean.

3.2.3. Lehen Hezkuntzan tratu txarrak ematen dituzten ikasleen jatorria, lekua eta sexua biktimen esanetan

Hurrengo grafikotan eta tauletan aurkezten diren datuak 2008koak bakarrik dira, datu bilketa errazteko asmoz galdera horiek galdera sortetan ez baitira 2005eko ikerlanean bezala egin, beste era batean baizik.

Ehunekoek biktimek, beren esanetan, ikaskideengandik jasan dituzten tratu txarretako jokaera kopurua adierazten dute, ikaskide horien jatorria, lekua eta sexua kontuan izanik. Ehuneko horietan ez dira sartzen horrelako jokaerarik sufritu ez dutela dioten ikasleak.

NONGOAK DIRA TRATU TXARREN EMAILEAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoa biktimen esanetan

Biktimen esanetan jazartzen dieten pertsonen jatorria	Jokaeren %
Nire taldekoak	43,5
Goragoko ikasmaila batekoak	17,9
Nire ikasmailakoak, baina ez nire taldekoak	15,7
Ikastetxetik kanpoko pertsonak	14,9
Beheragoko ikasmaila batekoak	7,9




Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.

Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaeren %43,5 taldekideek izaten dituzte. Gainontzeko tratu txarretako jokae-rak goragoko maila batekoek (%17,9), maila berekoak baina beste talde batekoek (%15,7) eta ikastetxetik kanpoko pertsonak (%14,9) izaten dituzte eta ehuneko txikiagoarekin (%7,9) beheragoko ikasmaila batekoek. Egoera hauek eta 2005eko ebaluaziokoak oso antzerakoak dira, ehunekorik altuena taldekideen artean gertatzen baitzen.

NON GERTATZEN DIRA TRATU TXARRAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoa biktimen esanetan

Biktimen esanetan ikastetxeko zein lekutan jasaten duten jazarpena	Jokaeren %
Jolastokian	36,7
Ikasgelan	16,5
Edozein lekutan	14,5
Ikastetxetik kanpo, ikastetxeko ikasleek	12,3
Jantokian	10,0
Korridorean	5,7
Komunetan	4,2




Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.

Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaera gehien “jolastokian” jasaten dituzte eta askoz ehuneko txikiagoarekin “ikasgelan” eta “edozein lekutan”. 2005eko ikerlanean bezala, tratu txarretako jokaerarik gehien, alde handiarekin, jolastokian gertatzen dira.

NORTZUK DIRA TRATU TXARREN EMAILEAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoa biktimen esanetan

Biktimen esanetan ikastetxean nork jazartzen dien	Jokaeren %
Mutil batzuek	39,5
Mutil batek	23,2
Neskek eta mutilek	14,8
Neska batzuek	11,7
Neska batek	10,7



Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.


Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaeren ia erdia “mutil batzuek” eragiten dute. Hein nahiko apalago batean “mutil batek” eta “neskek eta mutilek” eragiten dituzte. 2005eko ikerketako hurrenkera bera errepikatzen da.

3.2.4. Biktima eta eskola ingurunea

Atal honetan aurkezten diren datuak hurrengo honi buruzkoak dira: ikasleak ikastetxean nola tratatuta sentitzen diren eta zergatik, irakasleekin duten harremana, tratu txarrak jasaten dituztenean norekin hitz egiten duten eta kasu horietan zer egiten den.

22., 24., 25. eta 26. grafikoetan aurkezten diren ehunekoen batura 100 baino gehiago da, ikasleek galdera horietan erantzun bat baino gehiago hauta dezaketelako.

21. grafikoa. Ikastetxera joateko beldurra, inkesta egin duten ikasle guztien iritziz. Lehen Hezkuntza 2005-2008




Ikasleei ikasturtean zehar inoiz beldurrik sentitu ote duten galdetu zaienean, 2008ko ikerketan %69,6k "inoiz ere ez" erantzun dute.

"Ikastetxera joateko beldurra sentitzen duela" dioten ikasleen ehunekoa jaitsi egin da aurreko ebaluaziotik hona (2005eko %36,1etik 2008ko %30,4ra). Hala ere, oraindik ikasleen %3,8k aitortzen dute ikastetxera joateko beldurra "sarritan" eta "ia egunero" izaten dutela.

Hurrengo grafikoan, 2008an ikastetxera joateko beldurraren arrazoen banaketa azaltzen da, beldurra dutela dioten ikasleen artean eta ikasle bakoitzak beldurra izateko arrazoi bat baino gehiago aipa dezakeela kontuan izanik.


22. grafikoa. Beldurra sentitzen duten ikasleek emandako arrazoiak*. Lehen Hezkuntza 2005-2008



* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.

Datuak konparatzen baditugu, 2008ko ikerketan ikastetxeari egotz dakizkiokeen arrazoien ehunekoa (ikastetxe berria; irakasleren bat; ikasgelako lana) igo dela ikusten da, ikaskideei egotz dakizkiokeen arrazoien ehunekoa jaitsi delarik. "Bestelako arrazoiak" ere igo da.


23. grafikoa. Irakasleekiko harremana inkesta egin duten ikasle guztien iritzi.
Lehen Hezkuntza 2005*-2008



* 2005.eko datuak %100etara ajustatu dira 2008.eko datuekin konparatzeko.

Oro har, lagineko ikasleek uste dute irakasleekiko harremana hobetu dela eta %90ek irakasleek ondo tratatzen dituztela uste dute.


24. grafikoa. Zergatik sentitzen zara horrela irakasleekin? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak.
Lehen Hezkuntza 2005-2008



* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.

Ikasleak irakasleekin nola sentitzen diren aztertzen bada, %85,5ek esaten dute ondo trataturik sentitzen direla. Ondo ez sentitzeko ematen dituzten arrazoiaren artean erabilienak "gehiegi eskatzen didate" eta "begitan hartua naute" dira.

25. grafikoa. Norekin hitz egiten dute ikasleek biktima direnean? Lehen Hezkuntza 2005-2008




Grafiko honetan eta hurrengoan ikasle kopuru ezberdinek aitortzen dute inork ez dituela zirikatzen, bi galderetan erantzun hori emateko aukera ematen baitzaie eta galdera batean erantzun hori emateak ez baititu behartzen beste galderan erantzun bera mantentzera.

Balio horiek, jakina, adierazle orokorrean aurkeztutakoak baino altuagoak dira eta arrazoa sinplea da: adierazle orokorrak jokaera horiek ikasturte hasieratik "sarritan" eta "beti" gertatzen direla dioten ikasleak kontuan hartzen ditu, baina kasu honetan, ordea, ikasleek emandako informazio puntuala da.

Biktimek gehiago hitz egiten dute era guztietako pertsonekin, batez ere familiarekin (%61,9), lagunekin (%56) eta irakasleekin (%28,8).


Hala eta guztiz ere, ikasleen %14,8 oraindik zirikatuta sentitzen dira eta ez dute "inorekin" hitz egiten. Ehuneko hori 2005eko ebaluazioko berdina da.

26. grafikoa. Nork esku hartzen du jazarpena gertatzen denean? Lehen Hezkuntza 2005-2008




Tratu txarretako jokaeren aurrean parte gehien hartzen duten pertsonak, biktimen ustetan, "lagunen bat" (%68,1) eta "gurasoren bat", "neska edo mutil batzuk" edo "irakasleren bat" (%30 inguru) dira. Erasota sentitzen diren ikasleek oraindik %10ek esaten dute inork ez duela esku hartzen.

27. grafikoa. Zer egiten dute irakasleek jazarpena gertatzen denean? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak Lehen Hezkuntza 2005-2008



Irakasleek tratu txarren aurrean zer egiten duten era berdintsuan baloratzen dute ikasleek 2005eko eta 2008ko ikerketetan.

28. grafikoa. Zer egiten dute irakasleek jazarpena gertatzen denean? Biktimak direla dioten ikasleen erantzunak Lehen Hezkuntza 2008



Datuak jazarpenaren biktima sentitzen diren ikasleen ikuspuntutik eta biktima sentitzen ez diren ikasleen ikuspuntutik aztertzen baditugu, "batzuek parte hartzen dute jazarpena geldiarazteko" erantzuten duten biktimen ehunekoak apalagoa da. Gainontzeko kasuetan ez dago ezberdintasunik biktimen eta biktima ez direnen iritzien artean.

3.3. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRAK DBHN

3.3.1. Inkestaren lagina

- Ikasleak: 3.128
- Ikastetxeak: 80
- Aplikazioa: 2008ko apirila


Maila	Ikasleak	%
DBH 1	805	25,7
DBH 2	757	24,2
DBH 3	805	25,7
DBH 4	761	24,3
Guztira	3.128	100,0

- Lagina EUSTATEk egin du multzoka (ikastetxeka). Ateraldia sistematikoa izango da, aldagai hauen arabera ordenaturik: lurraldea, tamaina eta sarea.
- Ikasle kopurua ikastetxeko 10 da gutxienez eta 40 gehienez.
- Lagin akatsa 0,04 da.
- Ikastetxe bakoitzeko 40 ikasleak zoriz hautatu dira informatika programa baten bidez, 10 maila bakoitzetik (DBH 1eko 10 ikasle, DBH 2ko 10, DBH 3ko 10 eta DBH 4ko beste 10).

3.3.2. Tratu txarrak lekukoan, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntutatik

Jarraian ikastetxeetan DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleen artean ikasturtearen hasieratik behin eta berriro gertatzen diren tratu txarretako jokaerak aztertzen dira.

29. grafikoa. Tratu txarretako jokoerak LEKUKOen ikuspuntutik* DBH 2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.


Ahozko tratu txarretako jokoerak izan dira behatuenak, bigarren lekuan gizarte-baztertzeari dagozkionak daudelarik.

Ikasleen ia %7k esan dute "jotzea" jokoeraren lekuko izan direla.

Ciberbullyinga (mehatxatzeko telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzea eta mugikorraz, e-mailez edo txatez mezuak bidaltzea) lehenengo aldiz ebaluatu da, %2ko presentzia du eta interesgarria litzateke hurrengo ikerketetan zer nolako bilakaera duen ikustea.

Lekukoek ciberbullying jokoera horiek sarriago ikusi dituzte "sexu jazarpena", "gauzak egitera behartzea" eta "armez mehatxatzea" jokoerak baino.

30. grafikoa. Tratu txarren bilakaera LEKUKOen ikuspuntutik* DBH 2005-2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Tratu txarren lekuko izan diren ikasleen ehunekoa jokaera guztietan jaitsi da 2005eko ebaluazioarekiko.

Ahozko tratu txarren kasuan "iraintzea" jokaera asko jaitsi da (%50 ia). Tratu txar fisikoen artean "jotzea" jokaera 12,5 puntuz jaitsi da.

31. grafikoa. Tratu txarretako jokoarak BIKTIMAren ikuspuntutik* DBH 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Biktimen esanetan, ahozko tratu txarrei dagozkien jokoarak dira sarrienak. Haien artean "izengoitiak jartzea" da altuena eta ikasleen %4,2k jasaten dute.

Ikasleen %1,1ek esaten dute sexu jazarpenera jasan dutela eta %0,5ek ciberebullying bi jokoeretako bat jasan dutela.

Biktimen ikuspuntua bat dator lekuko behaketekin jokoararik arruntenei dagokienez (ikus 28. grafikoa).


32. grafikoa. Tratu txarren bilakaera BIKTIMAren ikuspuntutik* DBH 2005-2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

2005eko datuekin konparaturik, ahozko tratu txarretako jokaeren ehunekoak ("izengoitiak jartzen dizkirate", "nitaz txarto hitz egiten dute" eta "iraintzen naute") jaitsi dira. Gainontzeko jokaerei dagokienez, berdin mantendu dira edo aldaketa txikiak izan dituzte ("gauzak lapurtzen dizkirate", "beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute" eta "sexualki jazartzen didate").

33. grafikoa. Tratu txarretako jokaerak ERASOTZAILEREaren ikuspuntutik* DBH 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

DBHn maizen gertatzen diren tratu txarretako egoerak, erasotzailearen ikuspuntutik, ahozko tratu txarrak eta gizarte-baztertea dira. Dirudenez, erasotzaileak era horretako jokaerez gehiago ohartzen direla ikusten da.

Jokaera horietako batzuetan beren burua erasotzaileetat hartzen duten ikasleen ehunekoa %5,6 da gehienez.


34. grafikoa. Tratu txarren bilakaera ERASOTZAILEaren ikuspuntutik* DBH 2005-2008



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

2005eko ebaluazioarekin konparaturik, ehunekoak handiagoak dira jokaera gehienetan. Hala ere, zenbait kasutan ehunekoak hain dira txikiak, ezen ezin baitira benetako igoeratzat hartu eta beste kasu batzuetan ("berari buruz txarto hitz egiten dut", "ez diot kasurik egiten" eta "gauzak ezkututzen dizkiot") ezberdintasunak adierazgarriak dira.

35. grafikoa. Tratu txarrak ikasle lekukoek, biktimaren eta erasotzailearen ikuspuntutatik* DBH 2008




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, tratu txarren lekuko izan diren ikasleen ehunekoa biktimen eta erasotzaileen ehunekoak baino handiagoa da, gertaera bat pertsona askok batera ikus baitezakete.

Biktimari eta erasotzaileari dagozkien balioak oso antzerakoak dira “kasurik ez egitea” jokaeran izan ezik, erasotzaileen ehunekoa nahiko altuagoa baita.

36. grafikoa. Ikaskideen arteko tratu txarren bilakaera (lekuko, biktima eta erasotzaile bezala)* DBH 2005-2008



* "Sarritan" eta "beti" aukerretako ehuneko metatua.

Tratu txarren lekuko izan diren ikasleen ehunekoa jokaera guztietan jaitsi da 2008ko ebaluazioan.

Biktimek eta erasotzaileek antzerako ehunekoak dituzte bi ikerketetan. Deigarri gertatzen den jokaera bakarra “kasurik ez egitea (paso egitea)” da erasotzaileen kasuan biktimen kasuan baino altuagoa delako eta 2005eko ebaluaziorikiko igo egin delako.

3.3.3. Erasotzaileen jatorria, lekua eta sexua DBHn biktimen esanetan


Hurrengo grafikoetan eta tauletan aurkezten diren datuak 2008koak bakarrik dira, datu bilketa errazteko asmoz galdera horiek galdera sortetan ez baitira 2005eko ikerlanean bezala egin, beste era batean baizik.

Ehunekoek biktimek, beren esanetan, ikaskideengandik jasan dituzten tratu txarretako jokaera kopurua adierazten dute, ikaskide horien jatorria, lekua eta sexua kontuan izanik. Ehuneko horietan ez dira sartzen horrelako jokaerarik sufritu ez dutela dioten ikasleak.

NONGOAK DIRA TRATU TXARREN EMAILEAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoa biktimen esanetan

Biktimen esanetan jazartzen dieten pertsonen jatorria	Jokaeren %
Nire taldekoak	46,5
Nire ikasmilakoak, baina ez nire taldekoak	17,0
Goragoko ikasmila batekoak	16,2
Ikastetxetik kanpoko pertsonak	12,6
Beheragoko ikasmila batekoak	7,6




Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.

Biktimek jasaten dituzten tratu txarretako jokaera gehienak taldekideen artean gertatzen dira (%46,5); maila bereko beste talde batzuetakoek emandakoak (%17,0) eta goragoko maila batekoek emandakoak (%16,2) ez dira hain maiz gertatzen. Datu hauek Lehen Hezkuntzako datuen antzerakoak dira (ikus 3.2.3 atala).

NON GERTATZEN DIRA TRATU TXARRAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoa biktimen esanetan

Biktimen esanetan ikastetxeko zein lekutan jasaten duten jazarpena .	Jokaeren %
Ikasgelan	33,0
Jolastokian	22,0
Edozein lekutan	16,9
Ikastetxetik kanpo, ikastetxeko ikasleek	10,2
Korridorean	9,2
Jantokian	4,7
Komunetan	4,1



Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.

Tratu txarretako jokaeren heren bat ikasgeletan gertatzen dira, Lehen Hezkuntzan ez bezala, etapa horretan gehienetan jolas-tokian gertatzen baitira. Jokaera horiek batez ere irakasleak ikasgelaz aldatzen direnean gertatzen direla pentsa daiteke.

NORTZUK DIRA TRATU TXARREN EMAILEAK?

Jasandako tratu txarretako jokaeren ehunekoak biktimen esanetan

Biktimen esanetan ikastetxean nork jazartzen dien	Jokaeren %
Mutil batzuek	42,9
Mutil batek	22,1
Neskek eta mutilek	16,4
Neska batzuek	11,5
Neska batek	7,1



Oharra: Galderen formulazio ezberdina dela eta ezin dira zuzenki konparatu 2005.ekoekin.


Tratu txarren emailei dagokienez, erantzunik hautatuena "mutil batzuk" (%42,9) izan da. "Mutil bat" (%22,1) eta "neska eta mutil batzuk" (%16,4) aukerek ehuneko handia izan dute beste aukera guztien gainetik ("neska bat", "ikastetxetik kanpoko pertsonak"...). Lehen Hezkuntzako ikerketan gauza bera gertatzen da.

3.3.4. Biktima eta eskola ingurunea

Atal honetan aurkezten diren datuak hurrengo honi buruzkoak dira: ikasleak ikastetxean nola tratatuta sentitzen diren eta zergatik, irakasleekin duten harremana, tratu txarrak jasaten dituztenean norekin hitz egiten duten eta kasu horietan zer egiten den.

37., 39., 40. eta 41. grafikoetan aurkezten diren ehunekoen batura 100 baino gehiago da, ikasleek galdera horietan erantzun bat baino gehiago hauta dezaketelako.


37. grafikoa: Ikastetxera joateko beldurra inkesta egin duten ikasle guztien iritziz. DBH 2005-2008



Ikastetxera joateko beldurrik inoiz ez duten ikasleen ehunekoa apur bat igo da (7 puntu). Lehen Hezkuntzan gauza bera ikus daiteke (5,7 puntu).

Hala ere, 2008ko ikerketan ikasleen %2,3k aitortzen dute ikastetxera joateko beldurra "sarritan" eta "ia egunero" izaten dutela.


38. grafikoa. Beldurra sentitzen duten ikasleek emandako arrazoiak* DBH 2005-2008**



* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.
** 2005.eko datuak %100etara ajustatu dira 2008.eko datuekin konparatzeko.


Ikastetxera joateko beldurraren arrazoiaren artean, eskolako lanen ingurukoak dira ikasleek gehien aipatzen dituztenak.

39. grafikoa. Irakasleekiko harremana inkesta egin duten ikasleen iritziz DBH 2005-2008



Irakasleekiko harremana ia berdin mantentzen da 2005eko ebaluazioan emandako erantzunetikiko.

40. grafikoa. Zergatik sentitzen zara horrela irakasleekin? Inkesta egin duten ikasle guztiek emandako erantzunak* DBH 2005-2008**




* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.
 ** 2005.eko galdeketa "Irrigarri uzten nautelako" eta "Iraintzen nautelako" datuak banandurik agertu ziran; %5,1 bien batuketa da.

Ikasleen %71,9k esaten dute irakasleek ongi trataturik sentitzen direla; hala ere, kontuan hartzekoa da %6,2k noiz-bait irakasleek eraso edo irrigarri utzi dituztela esaten dutela. "Begitan hartua nau" eta "gehiegi eskatzen didate" aukerak apur bat igo dira.

41. grafikoa. Norekin hitz egiten dute ikasleek biktima direnean?*

DBH 2005**.-2008



* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.
 ** 2005.eko datuak %100etara ajustatu dira 2008.eko datuekin konparatzeko.

Grafiko honetan eta hurrengoan ikasle kopuru ezberdinek aitortzen dute inork ez dituela zirikatzen, bi galderetan erantzun hori emateko aukera ematen baitzaie eta galdera batean erantzun hori emateak ez baititu behartzen beste galderan erantzun bera mantentzera.

Balio horiek, jakina, adierazle orokorrean aurkeztutakoak baino altuagoak dira eta arrazoa sinplea da: adierazle orokorrak jokaera horiek ikasturte hasieratik "sarritan" eta "beti" gertatzen direla dioten ikasleak kontuan hartzen ditu, baina kasu honetan, ordea, ikasleek emandako informazio puntuala da.


Grafiko honetan eta hurrengoan ikasleen erdiak baino gehiagok esaten dute inoiz ez dutela tratatu txarretako jokaerarik jasan. Gainerakoan tratatu txarrak inoiz edo behin eta sarritan jasaten dituztela dioten ikasleak sartzen dira.

Lagunekin hitz egiten duten ikasleen ehunekoa igo egin da, familiarekin hitz egiten dutenena jaitsi eta irakasleekin hitz egiten dutenena mantendu egin da.

Aipatzeko modukoa da tratatu txarrak jasaten dituztenean "inorekin" hitz egiten ez duten biktimen ehunekoa, %13,7tik %18,8ra igo baita.

42. grafikoa. Nork esku hartzen du tratu txarrak gertatzen direnean?*

DBH 2005**-2008



* Erantzun bat baino gehiago onartzen da.


** 2005.eko datuak %100etara ajustatu dira 2008.eko datuekin konparatzeko.

Inork ez dituela zirikatzen diotenen ehunekoa ere aldatu da, %60,5etik %69,7ra igo baita. Lehen Hezkuntzan ehunekoa hori mantendu egin da 2005eko ebaluazioarekiko.

Inork ez duela esku hartzen dioten ikasleen ehunekoetan balioak egonkor mantentzen dira (%13,1 2008an; %12,4 2005ean).


43. grafikoa. Zer egiten dute irakasleek jazarpena gertatzen denean? Inkesta egin duten ikasle guztiak emandako erantzunak

DBH 2005-2008



Atal guztietako ehunekoak 2005ekoen antzekoak direla esan daiteke. Hala ere, aipatzeko modukoa da, irakasleek jazarpena geldiarazteko edo zigortzeko parte hartzen dutela ikasleen %49,3k aitortzen badute ere, %19,5ek "ez dute ezer egiten ez direlako enteratzen" erantzun dutela. Erantzun hori Lehen Hezkuntzan ikasleen %7,8k aukeratu dute.

44. grafikoa. Zer egiten dute irakasleek jazarpena gertatzen denean? Biktima direla dioten ikasleen erantzunak DBH 2008




Datuak jazarpenaren biktima sentitzen diren ikasleen ikuspuntutik eta biktima sentitzen ez diren ikasleen ikuspuntutik aztertzen baditugu, "ez dakit zer egiten duten" erantzuten duten biktimen ehunekoa apalagoa da. Era berean, biktimiek "ez dute ezer egiten, ez direlako enteratzen" erantzuna ehuneko handiagoarekin aukeratu dute.

3.4. ZUZENDARITZA TALDEETAKO EMAITZAK

3.4.1. Zer gertatzen da ikastetxeetan?

45. grafikoa. Tratu txarretako jokaera motak ikastetxeetan*



* "Sarritan" eta "beti" aukeretakoa ehuneko metatua.


Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziz, ikaskideen arteko tratu txarreko jokaerak gutxitu egin dira.

Zuzendaritza taldeen iritzia bat datoz ikasleen iritziekin: ikastetxeetan ahozko tratu txarrak dira nagusi. Zuzendaritza taldeen iritziz, "ez diote parte hartzen uzten" eta "gauzak ezkututzen dizkiote" jokaerak asko gutxitu dira, baina bik-timen iritziz jokaera horiek mantendu edo apur bat igo dira.

Aipagarria da tratu txarretako jokaera jakin batzuk zuzendaritza taldeen iritziz sarritan ikusten ez badira ere, ikasleen iritziz bai gertatzen direla, baina ez oso maiz. DBHn adibidez "jotzea", "gauzak apurtzea", "parte hartzen ez uztea" eta "zerbait egitera mehatxuz behartzea" jokaerekin gertatzen da eta "mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzea", "armez mehatxatzea" eta "sexu jazarpena" jokaerekin LHn eta DBHn.

3.4.2. Prebentzio ekintzak

46. grafikoa. Ikastetxearen prebentzio ekintzak tratu txarretako jokaerei aurre egiteko*




* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Prebentzio ekintza batzuk areagotu egin dira (tutoretza lana, prestakuntza, bizikidetzeta programetan parte hartzea eta irakasleen koordinazioa) eta beste batzuk jaitsi (irakasleek ikastetxearen antolamenduan eta metodologia aktiboagoan parte hartzea).

3.4.3. Nola esku hartzen dute ikastetxeek?

47. grafikoa. Ikastetxearen esku hartzea tratu txarretako egoeren aurrean*1



* "Sarritan" eta "beti" aukeretako ehuneko metatua.

Lehen Hezkuntzan ekintza hauek areagotu dira: bakarka hitz egitea, inplikatuarekin hitz egitea, familiarekin hitz egitea, arazoa klasean tratatzea eta txosten bat idaztea. Gainerakoak mantendu edo apur bat jaitsi dira.

DBHn ekintza hauek igo dira: inplikatuarekin hitz egitea, familiarekin hitz egitea, berehalako neurriak hartzea eta kanpoko laguntza eskatzea.

Badirudi ikastetxeetan tratu txarretako jokaerei aurre egiteko ikasleekin eta familiekin hitz egitea zabalitzen ari dela.


(1) ISEI-IVEIko Web orrialdean, "Tratu txarra berdinen artean: Bullyinga Euskadin (DBH)" (2004) ikerketaren argitalpenean, "Inplikatuarekin bakarka hitz egiten da" aukerari dagokion datuak (%75,3) "beti" erantzuna adierazten du soilik, "sarritan" eta "beti" adierazi beharren.

ONDORIO OROKORRAK

4

4.1. Nolako ondorioak atera daitezke?

- Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikaslerik gehienek beren ikaskideengandik tratu txarrik ez dutela jasaten esaten dute eta esperientzia positiboak izaten dituzte beren eskolatzeko prozesuan. Hala eta guztiz ere, tratu txarrekiko tolerantzia “zero” izan behar dela kontuan izanik, oso garrantzitsua da egoera horiek sufritzen dituzten ikasleen ehunekoa aintzat hartzea.
 - Tratu txarren adierazle orokorra 2008an %15,5ekoa da LHn eta %10,6koa DBHn.
- Tratu txarren baten biktima izan direla dioten ikasleen ehunekoa jaitsi egin da 2005eko ebaluazioarekiko. Jaitsiera hau batez ere Lehen Hezkuntzan izan da, %2 jaitsi delarik. DBHn ehunekoa %1,3 jaitsi da, baina jaitsiera ez da estatistikoki adierazgarria.
- Ahozko tratu txarrak (irainak, izengoitiak...) dira bi hezkuntza etapa horietan gehien gertatzen direnak. Bestelako tratu txarrak (gizarte-baztertzeta, biktimaren gauzei erasotzea eta tratu txar fisikoak) ez dira hain sarri gertatzen.
- Tratu txarrak jasaten dituztela dioten mutilen ehunekoa handixeagoa da neskena baino (%3 Lehen Hezkuntzan eta %1,4 DBHn).
 - Dirudenez, bi ehuneko horiek jaitsi egin dira 2005eko ebaluazioarekiko, mutilen kasuan bereziki. Mutilen ehunekoaren jaitsiera 2 puntu ingurukoa izan da bai DBHn bai Lehen Hezkuntzan, baina ezberdintasunak ez dira estatistikoki adierazgarriak.
- Tratu txarren ehunekorik handiena Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen artean gertatzen da. DBHko 3. eta 4. mailetan jaitsiera nabarmena ikusten da.
 - 2005ean LHko 5. mailako eta DBHko 4. mailako ehunekoen arteko aldea 10 puntukoa izan zen, 2008an aldea 8 puntukoa izan delarik.
- Tratu txarren gertalekua aldatu egiten da eskolatzeko prozesua aurrera joan ahala: Lehen Hezkuntzan ikastetxeko jolastokian gertatzen dira gehienbat eta DBHn, ikasgelan. 2005eko ebaluazioan antzerako ondorioak atera ziren.
- Tratu txarrak batez ere erasotako biktimaren taldeko “mutil batzuek” ematen dituzte.
- Tratu txarrak jasaten dituztela dioten ikasle gehienek lagunekin eta familiarekin komentatzen dituzte tratu txarrak. Hala ere, tratu txarrak inorekin komentatzen ez dituzten ikasleen ehunekoa kezagarria da (%15 LHn eta %19 DBHn).
 - Tratu txarrak jasaten dituzten ikasleen iritziz, lagunak eta familia dira, hurrenkera horretan, tratu txarren aurrean parte gehien hartzen dutenak, bai LHn bai DBHn.
- Ikastetxe gehienek ikasgela eta ikastetxe mailako neurriak hartzen dituzte, prebentzio neurriak bereziki, ikaskideen arteko tratu txarretako egoerarik gerta ez dadin.
 - Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eta ikasleek 2005eko ikerlanarekin konparaturik behatutako tratu txarretako jokaera guztiak gutxitu egin direla pentsatzen dute.
 - Ikastetxeetan 2005ean baino prebentzio ekintza gehiago burutzen dira, batez ere tutoretza lanari dagozkionak eta irakasleen bizikidetzaren inguruko prestakuntzari dagozkionak.



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ISEI•IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao / Tel.: 94 476 06 04 / Fax: 94 476 37 84 / info@isei-ivei.net / www.isei-ivei.net